

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

349

AGINDUA, 2016ko abenduaren 19koa, Hezkuntza sailburuarena, Balmasedako (Bizkaia) «Zubi-Zaharra Ikastola» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren baimena aldatzeko dena.

Balmasedako (Bizkaia) «Zubi-Zaharra Ikastola» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren entitate titularren ordezkariak hasarazitako espedientea aztertu da, zeinaren bidez baimena eskatzen baitu prestakuntza-espazioak birbanatzeko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako unitateen kopurua handitzeko eta Haur Hezkuntzako 1. zikloko unitateen kopurua gutxitzeko.

Espediente horren izapideak araudiak ezarritako prozeduraren arabera egin dira; gainera, indarrean dauden arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek egin diote txostena.

Arau hauek ikusi dira: apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua (apirilaren 9ko BOE), ikastetxe pribatuetan unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenei buruzkoa; otsailaren 12ko 132/2010 Errege Dekretua, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeek bete behar dituzten derrigorrezko baldintzak ezartzen dituen (martxoaren 12ko BOE); eta gai horretan aplikatu beharreko gainerako legeak. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Ikastetxe honi baimena ematen zaio, 2017-2018ko ikasturtetik aurrera, prestakuntza-espazioak birbanatzeko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bi unitate gehitzeko eta Haur Hezkuntzako 1. zikloko unitate bat kentzeko.

Kode-zenbakia: 48007983.

Izen espezifikoak: «Zubi-Zaharra Ikastola».

Titularra: Zubi-Zaharra Ikastola kooperatiba-sozietatea.

Helbidea: Aldapa kalea 56.

Udalerrria: Balmaseda.

Lurralde historikoa: Bizkaia..

Baimena:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2 unitate gehitzea, bakoitza 30 ikaspostuko edukierakoa.
- Haur Hezkuntzako 1. zikloko unitate 1 kentzea.

Ikastetxearen osaera:

- Haur Hezkuntzako 1. zikloa: 5 unitate, honelako edukierakoak:

- unitate 1 urtebetez azpiko haurrentzat, 8 ikaspostuko edukierakoa.
 - 2 unitate urtebetetik bi urtera bitarteko haurrentzat; bakoitza 13 ikaspostuko edukierakoa.
 - 2 unitate bi urtetik hiru urtera bitarteko haurrentzat: unitate bat 18 ikaspostukoa eta bestea 15 ikaspostukoa.
- Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 6 unitate, 138 ikaspostu.
 - Lehen Hezkuntza: 12 unitate, 300 ikaspostu.
 - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 6 unitate, 180 ikaspostu.
 - Hezkuntza Berezia: 2 ikasgela ireki.

2. artikulua.– Indarrean dagoen araudia betetzera behartuta dago ikastetxea, agindu honen bidez baimendutako unitateetako irakasleen titulazioari eta hizkuntza-eskakizunari dagokienez. Bestela, bidezkoa litzateke emandako baimena baliogabetzea.

3. artikulua.– Martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du ikastetxeak, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higie-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honetan dagoen baimen-emateak ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen edo diru-laguntzen deialdien bitartez laguntzarik lortuko denik.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 19a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.